

Irizarrek bezero galegoen aldeko apustua egiten jarraitzen du eta Nortransen izango da

Ourense, 2015eko ekainaren 26an

Irizarrek Nortranseko egonaldia baliatuko du markaren eta produktuaren balioak sendotu eta transmititzeko; hala nola, segurtasuna, fidagarritasuna, zerbitzua eta iaz 125 urteko historia ospatu ondoren inoiz baino sendo eta gazteago dagoen marka baten bermea.

Irizar Nortrans Azokan izango da aurten Galiziako merkatuarekin aldeko bere apustua eta "beti bezeroen ondoan egoteko konpromisoa" erakusteko asmoz. Izan ere, dagoeneko 50 urte baino gehiago pasatu dira autonomia erkidego hartan lehen autokarra entregatu zuenetik.

Nortransen Irizarrek 600m²-ko standa izango du. Azokan izango diren bezero, kolaboratzaile eta prentsa espezializatuaren topaleku izatea nahi genuke. Bost autokar ikusi ahal izango dira han, autokarren jabe diren bezeroek agertutako beharrei erantzuteko erabat pertsonalizatuak. Bi autokar Irizar Pb dira, 14.37m eta 12.37m-koak eta hiru autokar Irizar i6, 15.37m, 12.37m eta 10.78m luzekoak. Euro 6 txasisa komertzializatzen duten hainbat markatako txasisen gainean egindakoak dira, Galiziako zenbait bezeroenak.

Irizarren beste bi autokar ere ikusi ahal izango dira Man eta Scaniaren standetan. Hain zuzen ere 12 m-ko Irizar pb bat Manen standean eta 14m-ko Irizar i6 bat Scaniarenean.

Irizar pb eta Irizar i6

Galiziako bezeroek haien flotak berritzeko aukeratu dituzten modeloak autobus konpainien artean arrakastatsuenak dira. Batetik, Irizar pb, ibilbide luzeetarako eta prestigiozko turismorako ezin egokiagoa, urteetan zehar erreferente gisa sendotu dena ohiko garraioaren eta diskrezionalaren sektorean. Aurten 7.000. unitatea entregatu dugu eta horiei Irizarren gainerako produkzio lantegietan saldutako 3.000 unitateak gehitu behar zaizkie: Australian, Brasilen, Hego Amerikako herrialdeetan, Hegoafrikan eta Mexikon (eskaera gehien dagoen herrialdea)

Eta bestetik Irizar i6a, zerbitzu arrunt eta berezietarako gama altuko autobus balioaniztuna. Ezaugarri hauengatik nabarmendu zen: prestazioak, diseinua, aerodinamika, xehetasunen zainketa eta erosotasuna. Irizarren nortasun ezaugarriek nahasezin bihurtzen dute. Aurten 2.000. unitatea entregatu dugu eta gainerako produkzio lantegietan saldutako beste 2.000 gehitu behar zaizkie.



Azken berriak

Irizar Taldeak guztira 535 milioi euroko fakturazio batuarekin itxi du urtea, horietatik %82 esportazioko merkatuetan lortuta. 2014. urtea oso urte bizia izan da, eta aurreko urteetatik zetorren hazkundearen parametroak murriztu egin dira, batez ere gorabidean dauden herrialdeen ekonomiak hazkunde urriak izan dituelako.

Krisian zehar atzerriko lantegiek bultzatu dute Taldearen hazkundea, batez ere Brasilek eta Mexikok, baina aurreko joera aldatu egin da, eta Irizar Ormaiztegi izan da gehien hazi eta gorabidean dauden herrialdeen gainbehera konpentsatu duena.

Guztira, 2014. urtean atzerriko lantegiek Taldearen salmenta guztien %42 egin dituzte, aurreko urtean %47 izanik; eta Ormaiztegi salmentak, berriz, guztien %38 izan dira, aurreko urtean %33 izanik. Taldeko gainerako konpainiek fakturazioaren gainerako %20a eman dute.

2014an Irizar Ormaiztegin autobusen ekoizpenean hazkundea aipatu behar dugu berriro ere: hazkundea %15koa izan da aurreko urtearekiko, eta 2013an ere %15 hazi zen 2012arekiko. Eta %47ko merkatu kuota lortu dugu Espainian, Irizarren historiako kuotarik handiena. Arrazoi nagusiak dira, alde batetik, produkzio unitateak gehiagotzea, bai marka propioko autokarretan bai konbentzionaletan, eta, bestetik, autokarrek ekipamendu hobeak dituzte Europako merkatuen eskaerak asetzeko.

2.600 pertsonak osatuta, Irizar Taldeak Munduan banatuta dauden bost autokar eta autobus lantegitan garatzen du jarduera (Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrika), eta beste bost konpainia ere badituena, bere dibertsifikazio industrialaren fruitu gisa, baita I+G Zentro bat ere, epe luzera begira dagoena, ikerketa aplikatuaren prozesuan eta produktu eta sistema propioen garapenean.